

# WIKIPEDIA **EBALUATZEN**

Artikulu  
eboluzioa  
zein izan den  
jakitea  
eta artikulu  
kalitatea  
ebaluatea



EUSKAL  
**WIKILARIEN**  
KULTURA ELKARTEA

## Wikipedia da inoiz sortu den entziklopediarik handiena

Wikipedia da inoiz sortu den entziklopediarik handiena. Ehunka hizkuntzatan dago. Entziklopedia tradizionalak ez bezala, Wikipediak edizio irekiko eredu bat erabiltzen du. Edonork egin ditzake ekarpenak, zuzenean artikulua idatziz edo editatuz. Beraz, artikuluen kalitatea gorabeheratsua da. Irakurleontzat, garrantzitsua da ezagutzea ea artikulua bat ona ala eskasa den.



## Zer da Wikipedia?

Wikipedia ez da lehen mailako iturria, hala nola zuzeneko elkarrizketa bat; ez eta bigarren mailako iturria, hala nola txosten akademiko bat edo egunkariko albiste bat. Wikipedia entziklopedia bat da. Lehen eta bigarren mailako iturrietatik hartutako informazioen bilduma da, ikuspegi orokor bat ematen duten artikuluetan txertatuta eta antolatuta. Beste entziklopedia batzuk bezala, Wikipedia abiapuntutzat erabili behar litzateke. Gai baten ikuspegi zabal bat eman dezake, eta lehen nahiz bigarren mailako iturri kalitate handikoak aurkitzen lagun diezazuke.

### Wikipedia lagungarria izango zaizu hau egiteko:

- Gai baten ikuspegi orokor bat hartzea
- Gai bati buruzko lan gomendatuen zerrenda bat lortzea
- Gai horri loturiko beste gai batzuk ezagutzea

## Nola sortzen dira Wikipediako artikulak?

Wikipediako artikulua tipikoa bat ez da ekinaldi bakarrean sortzen. Artikuluak hazten joaten dira, edizioz edizio; maiz, lankidetzan aritzen diren hainbat egileren eskutik. Beharbada, norbaitek hasiko du artikulua; beste batek, testu zatiren bat gehituko dio; eta beste batek, beste era batera antolatuko du, errazago irakur dadin. Inor ez da artikulua «jabea», baina jende askok ardurua hartzen du denbora asko eskaini dieten artikulua zaintzen.

# Wikipediako artikulu baten eboluzioari behatzea

Artikulu bakoitzak zer eboluzio izan duen ikus dezakezu, goialdean dagoen «**Ikusi historia**» loturan klikatuta. Artikuluak izan dituen bertsio guztiak aurkituko dituzu hor.

«**Ikusi historia**» orrian, lerro bakoitzak artikuluaren bertsio bat adierazten du. Klikatu datan, bertsio hori ikusteko. Ikus dezakezunez, bertsio bakoitza lotuta dago edizio hori egin zuen erabiltzailearekin.

- (oraingoa | aur) 11:29, 18 abuztua 2015 Josu (eztabaida | ekarpenak) .. (16.053 byte) (+4) .. (→Galeria) (desegin)
- (oraingoa | aur) 11:23, 18 abuztua 2015 Josu (eztabaida | ekarpenak) .. (16.049 byte) (+31) .. (→Galeria) (desegin)
- (oraingoa | aur) 17:47, 4 apirila 2015 EnzaiBot (eztabaida | ekarpenak) † .. (16.018 byte) (+200) .. (Robota: Birzuzenketak konpontzen) (desegin)

Konparatu oraingo edo aurreko bertsioarekin      Edizioaren ordua eta data      Edizioa egin duenaren erabiltzaile izena edo IP helbidea      Editatze-iruzkina

Era berean, artikuluaren bi bertsio konpara ditzakezu, konparatu nahi dituzun bertsioei dagozkien aukera botoiak hautatuz eta «Alderatu hautatutako bertsioak» klikatuz. Bi zutabe ikusiko dituzu: ezkerrekoa da bertsio zaharrena, eta eskuinekoa berriena. Ezberdinta-

sun guztiak nabarmenduta agertzen dira. Eginbide hau erabil dezakezu, bi bertsioen artean zer gertatu den zehazteko, hau da, zer erantsi eta zer ezabatu den ikusteko.

<p><b>12. lerroa:</b></p> <p>Bakterioak gure planetako bizidun ugariak dira. Non-nahi daude, mota guztietako [[habitat]]etan: lurzoruan, uretan, airean eta beste bizidunen barnean ere. Habitat gogorrenetan eta latzenetan bizi daitezke, gainontzeko bizidunek onartzen ez dituztenak: 0° C-tik beherako tenperaturetan eta 100° C-tan ere; itsasoko sakoneran, 5.000 metrotik behera, ikaragarriko presioak jasanez; habitat [[azido]]etan ([[pH]]=1) eta urik gabeko tokietan, etab. Espezie batzuk [[patogeno]]ak badira ere, bakterio gehienak ez dira kaltegarriak gizakiarentzat; are gehiago, oso onuragarriak dira [[sinbiosi]]a gertatzen denetan edota zenbait industri prozesutan. Bestalde, materiaren zikloetan ([[karbonoaren zikloa karbonoa]] zein [[nitrogenoaren zikloa nitrogenoaren]] parte hartzen dute, eginkizun garrantzitsua osatuz.</p> <p>[[Lurra Lurreko]] ekosistemetan betetzen duten zeregina garrantzi handikoa izaten da. Horregatik, esan ohi da bakteriorik gabe ez gizaki, ezta [[animalia]] edo [[landare]]en bizitza ez zela posible izango Lur planetaren gainean.</p> <p>== Taxonomia ==</p>	<p><b>12. lerroa:</b></p> <p>Bakterioak gure planetako bizidun ugariak dira. Non-nahi daude, mota guztietako [[habitat]]etan: lurzoruan, uretan, airean eta beste bizidunen barnean ere. Habitat gogorrenetan eta latzenetan bizi daitezke, gainontzeko bizidunek onartzen ez dituztenak: 0° C-tik beherako tenperaturetan eta 100° C-tan ere; itsasoko sakoneran, 5.000 metrotik behera, ikaragarriko presioak jasanez; habitat [[azido]]etan ([[pH]]=1) eta urik gabeko tokietan, etab. Espezie batzuk [[patogeno]]ak badira ere, bakterio gehienak ez dira kaltegarriak gizakiarentzat; are gehiago, oso onuragarriak dira [[sinbiosi]]a gertatzen denetan edota zenbait industri prozesutan. Bestalde, materiaren zikloetan ([[karbonoaren zikloa karbonoa]] zein [[nitrogenoaren zikloa nitrogenoaren]] parte hartzen dute, eginkizun garrantzitsua osatuz.</p> <p>[[Lurra Lurreko]] [[<b>Ekosistema</b> ekosistemetan]] betetzen duten zeregina garrantzi handikoa izaten da. Horregatik, esan ohi da bakteriorik gabe ez gizaki, ezta [[animalia]] edo [[landare]]en bizitza ez zela posible izango Lur planetaren gainean.</p> <p>== Taxonomia ==</p>
<p><b>26. lerroa:</b></p> <p>[[Fitxategi: Bacterial morphology diagram.svg right thumb 350 px Bakterioen itxura desberdinak]]</p> <p>Bakterioen tamaina mikra baten ingurukoa da. Bakterio txikiak "[[Mycoplasma]]" generoak dira, 0,25 mikrako zabalera dutenak. "[[Bacillus]]" da genero handiena, 5 mikrako luzera izanik. Bakterio gehienak <b>bi neurri horien</b> artean kokatzen dira.</p>	<p><b>26. lerroa:</b></p> <p>Bakterioen tamaina [[mikra]] baten ingurukoa da. Bakterio txikiak "[[Mycoplasma]]" generoak dira, 0,25 mikrako zabalera dutenak. [[<b>Thiomargarita namibiensis</b>]] da <b>gaur egun ezagutzen den bakterio</b> handiena, <b>0,5 mm-ko</b> luzera izanik (<b>mikroskopiorik gabe ikus daiteke, salbuespena dena [[prokarioto]]en artean</b>) &lt;ref&gt; G. Jara, David: "Bacterias, bichos y otros amigos" Ed. Ariel (2016) 30-31 orr &lt;/ref&gt;. Bakterio gehienak <b>0,5 eta 5 mikrako luzeren</b> artean kokatzen dira.</p>


## Ekarpen-egileek nola hobetzen duten Wikipedia

Jende gehienak, Wikipedia aipatzean, entziklopediako artikulua soilik ditu gogoan. Hala ere, agertokiaren atzealdean ere lan ugari egiten da: Wikipediari egiten zaizkion edizioen erdia-edo artikulua ez diren orriak egiten zaizkie. Ekarpen-egileek artikuluek zer eboluzio izan beharko luketen eztabaidatzen dute, iturrien kalitatea ebaluatzen dute, eta editatze politikak ezartzen dituzte. Orri eta eztabaida horiek irekita daude edo-nork ikus ditzan, artikulua eurak bezalaxe. Aski duzu non begiratu behar den jakitea.

Artikulu bakoitzak bere **eztabaida orria** du. Artikulu bakoitzaren goialdean, bada **«Eztabaida»** izena duen fitxa bat. Klikatu hor, eta artikulua sortzeko zenbat gogoeta egin den ikusiko duzu. Beharbada, zeure buruari galdezka ari zaren alderdiren bat dagoeneko eztabaidatu da. Artikuluaren kalitateari buruzko zalantzak baldin badituzu eta zeuk hobetu ezin baduzu, idatz itzazu zure galderak eztabaida orrian.



Galdera askori egun gutxiren buruan erantzuten zaie. Astebetean zure galderak arretarik jaso ez badute, baina, beharbada ideia ona izango da artikuluari ekarpenak egin dizkietenei zuzenean galdetzea, edo eztabaidagune orokorrago batera jotzea. Klika ezazu **«Ikusi historia»** fitxan, bila ezazu artikuluari hainbat edizio egin dizkion erabiltzaile bat, eta klika ezazu haren eztabaida orri pertsonalera daraman loturan. Ekarpen-egile horri galderak egin diezazkiokezu orri horretan.



## Artikulu baten kalitatea ebaluatzea



Artikulu onak eta nabarmenak bereizteko ikonoak

Wikipediako artikuluen kalitatea oso gorabeheratsua da. Artikulu asko oso onak dira, baina batzuek ez dute aski sakontasun eta argitasun, edo alde baterantz lerratuta daude, edo zahar-

kituta. Euskarazko Wikipedian, bada prozesu formal bat artikulua hobereenak «artikulu nabarmen» gisa identifikatzeko. Hala ere, webguneko artikulua gehien-gehienek —nahiz eta batzuk oso onak diren— ez dute izendapen hori eskuratu.

Beraz, nola baliozta dezakezu artikulua baten kalitate orokorra laster batean?

Bi bide nagusi daude:

- Bilatu kalitatezko artikuluen osagaiak
- Bilatu kalitate txarraren ohiko seinaleak

# Kalitatezko artikuluen osagaiak

Oro har, kalitate handiko artikuluek bost osagai dituzte:

- erraz ulertzen den ikuspegi orokor bat ematen duen sarrerako atal bat,
- egitura argi bat,
- estaldura orekatua,
- eduki neutrala, eta
- iturri fidagarriak.

✓ **Sarrerako atala ulerterraza da** eta artikulua funtsezko puntuak laburbiltzen ditu. Adibidez, biografia batean, sarrerako atalak aipatu behar du pertsona hori zergatik den ezaguna eta non bizi izan zen, baina ez du zergatik adierazi haren haurtzaroari buruzko xehetasunak, halako xehetasunak eskuarki egokiagoak baitira geroagoko atal baterako.

✓ **Egitura argia da.** Hainbat atalburu eta azpiatalburu daude, toki egokietan jarritako irudi eta diagramak, eta iturriak eta oin oharrak bukaeran. Artikulu gehienetarako, edukia kronologikoa da, edo gaika antolatuta dago.

✓ **Gaiaren alderdi guztiak ondo orekatuta daude.** Ez dago artikulua menderatzen duen alderdi bat, eta alderdi nabarmen guztiak daude landuta. Ikuspegi garrantzitsuenek toki gehiago dute artikuluan. Esaterako, katu arraza bati buruzko artikulua batek arraza horren izaerari buruzko deskribapen luzea baldin badu eta haren ezaugarri fisikoei buruzko informazio gutxi badu (edo batere informaziorik ez), artikulua hori ez dago ondo orekatuta.

✓ **Estaldura neutrala da.** Artikuluek alderdikeria gabe idatzita egon behar dute. Arlo horretako adituaren artean desadostasunik baldin bada, haien ikuspegi nagusiak oreka egokiarekin jaso behar dira. Bai elementu positiboak, bai negatiboak sartu behar dira, iturri fidagarrietan duten estalduraren proportzioan. Artikulu onek, orobat, hizkuntza neutrala darabilte, eta datu objektiboak ematen diete garrantzia. Artikuluak ez lirateke interpretatu behar zerbaitez konbentzitzeko saiakeratzat, baizik eta entziklopediako artikulutzat.

✓ **Garrantzitsuak dira iturri fidagarriek egindako erreferentziak.** Artikulu onek oin ohar ugari izaten dute behealdean. Argitalpen fidagarrietara daramaten lotura ugari daudela ikusten baduzu, kalitate handiko artikulua bat irakurtzen ari zarela pentsatzeko seinale ona da. Marteri buruzko artikulua loturak izan behar du lituzke NASaren webgunera, baina ez astronomo amateur baten blogera.

# Kalitate txarraren seinaleak

- ✘ Artikuluak **abisu-titular bat** du goialdean. Abisu-titular gehienak informazioa edo eskaerak besterik ez dira; konparazio baterako, oso laburra den artikulua bat luzatzeko eskatzen dizun titular bat. Hala ere, abisu-titularrek batzuetan adierazten dute ebatzi gabeko auzi bat dagoela artikulua neutraltasunari buruz edo haren iturriaren kalitateari buruz.
- ✘ **Hizkuntza arloko hainbat arazo** daude artikulua **sarrerako atalean**. Sarrerako ataleko arazoak, oro har, artikulua osoan arazoak dauden seinale izaten dira. Sarrerako atala oso laburra bada, horrek adieraz lezake artikulua zatiz zati haziz joan dela, lan orokorrari askorik begiratu gabe.
- ✘ Testuan **iritzi iturri gabeak** eta **balorazioak** jaso dira; ez dira neutralak, eta kendu egin behar lirateke. Adibidez, hau esan beharrean: «Abeslaririk onena zen», testuak hau esan behar luke: «Hoberenen zerrendako lehen postuan jarri zituzten haren 14 single, beste ezein abeslarirenak baino gehiago».
- ✘ Artikuluan «batzuk», «asko» edo beste **jende kopuru zehaztugabe batzuk** aipatzen ditu. Adierazpen horiek orokorrekiak dira, eta horien ordean datu objektiboak jarri behar lirateke.
- ✘ Badirudi **gaiaren alderdi batzuk falta** direla artikulua eduki taulan. Adibidez, biografia batean pertsona horren aldi oso bat agertzen ez baldin bada, beharbada datu garrantzitsuak falta dira.
- ✘ Atal batzuk **luzeegiak** dirudite, **zer-nolako garrantzia duten kontuan hartuta**. Esaterako, enpresa bati buruzko artikulua batean, «Kritikak» atal luze bat azaltzen bada, gainerakoan artikulua laburra izanik, horrek pentsarazten du artikulua enpresa horren kontrako joera alderdikoia duela.
- ✘ Artikuluak **erreferentzia gutxi** ditu, edo artikulua zati handi samar batzuek ez dute oin oharririk. Artikulu bat iturri gutxiagitan oinarrituta baldin badago, beharbada ez dauka gai horri buruzko informazio osoa.
- ✘ Eztabaida orria **etsaitasunezko mezuz beteta** dago. Artikuluan lan egiten ari diren editoreak ez badute elkarren artean adostasunik aurkitzen, artikulua beharbada alderdikoia izango da alde baterantz, edo artikulua gaiari buruzko alderdi eztabaidatsuren bati buruzko xehetasun gehiegi izango ditu agian, hain eztabaidatsuak ez diren alderdiei aski arretarik eskaini gabe.

# Zer egin kalitatez eskasak diren artikuluekin

Denbora eta jakintzak baldin badituzu, zuzendu itzazu arazoak zuk zeuk, artikulua-ren goialdean **«Aldatu»** klikatuta.

**1.** Egiazta ezazu ea arazoa aldi baterakoa den; esaterako, norbait bere idoloari buruzko datu desatseginak dakartzan atal bat ezabatzen saiatzen ari dela. Klika ezazu **«Ikusi historia»** fitxan, artikulua-ren goialdean, eta begiratu azken edizioetan zer gertatu den.

**2.** Arazoa azken edizioetan baldin badago, **«dese-gin»** klikatuz berehala konpon dezakezu kaltea. Arazoa aspaldi samarrekoa baldin bada edo nola konpondu ez badakizu, utz ezazu ohar bat **eztabaida orrian**: arazoa zertan datzan deskribatzen duen ohar bat.

**3.** Arazoa larria baldin bada (konparazio baterako, bizi den pertsona bati buruzko kalumniazko adierazpenak), ezaba itzazu zati arazotsuak, dudarik egin gabe. Gogoan izan itzazu zeure alderdikeriak, batez ere zeure buruaz, zeure nazioaz edo zeure erakundeaz ari den artikulua batean lan egiten ari bazara. Kritikak dakartzaten atalak egokiak dira; bereziki, iturri egokiak baldin badituzte. Zerbait ezabatzen baduzu, nahi baduzu **eztabaida orrian** esplikatu dezakezu, zergatia argiago gera dadin.

Kalitate eskaseko testua duen artikulua bat aurkitzen duzunean zer egin dezakezun xehetasun handiagoz jakin nahi baduzu, bilaketa laukian idatz ezazu **«Wikipedia:Artikulu hobek idaztea»**.

# Fida zaitetzke Wikipediaren zehaztasunaz?

Fidagarritasuna garrantzitsua da.

Askorentzat, Wikipedia erabiltzea arrunta bihurtu da, baina nola ziurta dezakezu kalitatezko informazioa dakarkizula?

«Wikipedia ebaluatzea: artikuluen eboluzioa zein izan den jakitea eta artikuluen kalitatea ebaluatzea» erreferentziako gida bat da, Wikipediari etekinik handiena ateratzeko urratsak esplikatzan dizkizuna.

Material gehiago:

**<http://bookshelf.wikimedia.org>**



Wikimedia Commons webguneko irudi guztiek CC BY-SA lizentzia dute, edo jabego publikokoak dira, bestela adierazi ezean. Hemengo edukiak Creative Commons Aitortu-PartekatuBerdin 3.0 lizentzia du (<http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu>), edo lizentzia horren geroztiko bertsioen bat.

Wikimedia Fundazioaren marka erregistratuak eta logoak, eta beste ezein erakunderenak, ez daude sartuta Creative Commons lizentzia horretan. Wikimedia Foundation, Wikipedia, Wikimedia Commons, MediaWiki, Wiktionary, Wikibooks, Wikidata, Wikisource, Wikinews, Wikiquote, Wikiversity, Wikivoyage, Wikispecies eta Meta-Wiki markatzat erregistratzekotan daude edo Wikimedia Fundazioaren marka erregistratuak dira.

Informazio gehiago nahi baduzu, ikus ezazu marka erregistratuei buruzko politikaren gure orria (ingelesez): [http://wikimediafoundation.org/wiki/Trademark\\_Policy](http://wikimediafoundation.org/wiki/Trademark_Policy).

Lizentzia baldintzei edo marken politikari buruzko beste edozein galdera izanez gero, idatzi helbide honetara: [legal@wikimedia.org](mailto:legal@wikimedia.org)